

Bertsolaritzaren ikaskuntzak geroari begira

(The studies on *bertsolarism* reference to the future. Round table)

Mahai ingurua

Moderatzailea: Joxerra Garzia, *Euskal Herriko Unibertsitatea*

Pello Esnal, *HABE*; Andoni Egaña, *EHBE*; Jon Sarasua, *Mondragon Unibertsitatea*

Pello Esnalek orain arteko ikerketak aintzat hartu eta era berean gainditzen dituen ikerbide bat proposatzen du, ikuspegi pragmatiko-diskurtsibo batetik. Bat-bateko bertsogintzaren orain arteko historia ulertzeko parametro berriak proposatzen ditu lehenik, desafioetatik hasi eta gaur egungo txapelketarainokoa. Aurrea begira bertso jarduera aztertze honako bost alderdiok aipatzen: xedea, formatua, jarduna, epaitze irizpideak eta epaileak. In Sarasuak gaur egungo bertsolaritzaren deskripzio sozio-kulturala egiten du, Informazioaren gizarteak bertsolaritzari planteatzen dizkion aukera eta mehatxuak errepasatuz. Andoni Egañak, berriz, bertsolaritzaren transmisioaren bi zutabeak aztertzen ditu: bertsolaritzak eskola arautuan duen eta izan behar lukeen egitekoa, eta, bestetik, berriz, bertso eskolen errealitatea.

Giltza-Hitzak: Bertsolaritzaren ikuspegi pragmatiko-diskurtsiboa. Bertso desafioak. Bertso txapelketak. Bertsolaritzaren ezaugarri sozio-kulturalak. Bertsolaritzaren transmisioa. Bertsoa eskolan. Bertso eskolak.

Pello Esnal toma en consideración las investigaciones realizadas hasta el presente y al mismo tiempo propone un método de investigación que las supera, desde un punto de vista pragmático discursivo. En primer lugar, propone unos parámetros nuevos para la comprensión de la historia de la versificación improvisada vasca hasta nuestros días, empezando por los desafíos hasta llegar a los actuales concursos. De cara al futuro, menciona cinco aspectos a analizar en la actividad improvisadora: objeto, formato, actuación, criterios de juicio y jueces. In Sarasua efectúa una descripción socio-cultural del bersolarismo actual, haciendo un repaso de las oportunidades y desafíos que la Sociedad de la Información plantea al mismo. Andoni Egaña, por su parte, analiza los dos pilares de la transmisión del bersolarismo: por un lado, la tarea que cumple y la que debería cumplir el bersolarismo en la escuela normalizada y, por otro lado, la realidad de las escuelas de versificación (bertso eskolak).

Palabras Clave: Punto de vista pragmático discursivo del bersolarismo. Desafíos entre bersolaris. Campeonatos de bersolaris. Características socio-culturales del bersolarismo. Transmisión del bersolarismo. La versificación en la escuela. Escuelas de versificación.

Pello Esnal prend en considération les recherches réalisées jusqu'à présent et propose en même temps une méthode de recherche qui les surpasse, d'un point de vue pragmatique discursif. Premièrement, il propose des paramètres nouveaux pour la compréhension de l'histoire de la versification improvisée basque jusqu'à nos jours, en commençant par les défis jusqu'aux concours actuels. Face à l'avenir, il mentionne cinq aspects à analyser dans l'activité improvisatrice: objet, format, façon d'agir; critères de jugement et juges. In Sarasua effectue une description socio-culturelle du bersolarisme actuel, en faisant une révision des opportunités et des défis que la Société de l'Information lui pose. Andoni Egaña, pour sa part, analyse les deux piliers de la transmission du bersolarisme: d'un côté, les tâches qu'il accomplit et celle que devrait accomplir le bersolarisme au sein de l'école normalisée et, d'un autre côté, la réalité des écoles de versification (bertso eskolak).

Mots Clés: Point de vue pragmatique discursif du bersolarisme. Défis entre bersolaris. Championnats de bersolaris. Caractéristiques socio-culturelles du bersolarisme. Transmission du bersolarisme. La versification à l'école. Ecoles de versification.

Pello Esnal

Ondo etortzen da batzuetan data bat hartzea erreferentzi moduan. Eta horrela egingo dugu orain ere. Ehun eta hogeita bost urte atzera joan eta 1876an kokatu geure buruak. Zer gertatu zen bada urte horretan? Bigarren Karlistada amaitu zela eta Bilintx hil zitzaigula hemendik kilometro bat eskasera. Foruak kendu zizkiguten biharamunean, baina besterik... zer gertatu zen 1876an? Oso gordin eta bero esanda, 1876an hasi zen bertsolaritza modernitatean sartzen, edo nahi bada modernitatea bertsolaritzan sartzen. Jakinaren gainean ala oharkabean, hori beste kontua da. Eta zertxobait zehazteko, ikus dezagun zer ulertzen dugun modernitateaz. Historiaren aldi handia hartzen du modernitateak eta hasi, filosofian esaterako, Descartesekin hasten dela esan ohi da. Descartesek bereizketa bat egiten du: alde batetik, gizakia- ren errealitate materiala, fisikoa, eta bestetik, gizakia- ren ideiak eta sentimenduak, errealitate psikikoa. Errealitate bakoitzak bere sustantzia du eta sustantzia horien emaitza da. Beraz, bi sustantzia eta bi errealitate, bi zati. Euskaraz, bi esanahi desberdin ditu *berizi* hitzak; gaztelaniaz esanda, bate- tik *distinguir* eta bestetik *separar*, nabarmendu edo banandu, eta biak egiten ditu Descartesek erreali- tate fisikoa eta psikikoa bereiztean. Beste horren- beste gertatzen da hizkuntzalaritzan ere, askoz ere gerago. Chomskyk, esaterako, forma eta esanahia bereizten ditu, bereizi eta banandu. Eta, hain zuzen ere, banantze eta bikoizketa hori du modernitateak ezaugarri. Ikus dezagun nola ematen den zatiketa, banantze hori, hori, bereizketa hori bertsolaritzan. Bost aldi bereiziko ditut 1876 urtetik gaur arte.

Lehenbiziko aldia: 1876-1900. Sariketak eta Jose Manterola.

Hasi, Antonio Zavalaren pasarte batekin hasiko gara; erdaraz dago eta erdaraz irakurriko dut: “Al terminar la segunda guerra carlista, surge en el país un movimiento a favor de su lengua. Se diría que el pueblo vasco ocupado hasta entonces en la defensa de su estructura foral y derrotado en esa batalla, se dispone ahora a la salvaguarda de ese otro constitutivo de su esencia. Sus ojos se fijan entonces en el bertsolarismo y lo cataloga como uno de los elementos más importantes e íntimos del alma popular. Vinieron entonces los concursos. No nacen como el desafío del mismo pueblo, es la clase culta la que los procura a éste. Su más decidido impulsor fue Jose Manterola, principal artífice de este movimiento en favor del idioma”. Eta hain zuzen, desafioak eta sariketak alderatuz, jabetuko gara nola gertatzen den bertsolaritzan lehenengo bereizketa. Zatiketa, sariketa.

Desafioak. Desafioetan, denetan gogoangarri- na, noski, 1801ean jokatu zuten Amezketako Zaba- lak eta Hernaniko Txabalategik. Gogora ditzagun zenbait xehetasun. Amezketatik eta Hernanitik erdi bidean dagoelako aukeratu zuten Billabona. Bosna ontzako urre jokatu zituzten. Epaille bana eram- an zuten, Txabalategik Altamira Aizarnazabaleko sakristaua, eta Zabalak Fernando Amezketarra.

Hirugarren epaile bat ere izendatu zuten: Billabona- ko alkatea. Baina Billabonako alkateak atzera egin zuen eta orduan Tbosako artziprestea eram- an zuten hirugarren epaile bezala, Mendizabal izeneko bat. Eta epaia bertsotan eman zuten. Bertsotan eman, herriaren epaiaren bozeramaile: “Bata adin bat egin / behar degu bestea”. Enpate, alegia. Hor- txe daukagu desafioa.

Sariketak. Aurreratu bezala 1876tik aurrera hasi ziren sariketak. Hemen bi bakarrik gogoratuko ditut. Horietako lehengoa Irunen izan zen, 1881eko irailaren 9an. Bederatzi bertsolari izan zituen partai- de: bi asteasuar, Pello Errota eta bere anaia Juan Cruz; bi usurbilgo, Goriya eta Udarregi; hiru honda- ribiar, Labandibar deitutako hiru anaia; Zizurkilgo bat, Juan Jose Beldarrain, eta Igeldoko bat, Oloki. Lehenik, gaia emanda jardun omen zuten binaka, eta gero bertsolari batek puntua jarrita eta besteak bertsoa osatuz. Merezi du gogoratzea zein gai ipini zizkieten ere. Pello Errota eta Udarregiri: “Baldin elkartzen bagera euskaldunak izango ditugu orain- dik zoriontasunak”. Kontuan izan karlistada bukatu berria zela. Eta abar Gero, beharbada, itzuliko gara atzera. Esate baterako, bederatzi bertsolari ziren eta orduan binaka jardun zuten, eta Oloki gelditu zen lagunik gabe eta Pello Errota berriro hartu zuten eta berriro ere kantatu behar izan zuen Olokiarekin. Gaur gertatzen direnak, orduan ere. Beste datu bat, epaimahaikoak zeintzuk izan ziren badakigu: Arturo Campión, Alfonso María Zabala, Claudio Otaegi eta beste laugarren bat, izenik ez da azaltzen baina seguruenan Jose Manterola bera izango da. Hauek, epaia ematerakoan, hiru sailetan banatu zituzten bertsolariak: onenak, Udarregi, Goriya eta Pello Errota; ondoren, Juan Cruz, Beldarrain eta Oloki, eta azkenik, Labandibar anaiak. Sariketarik ospe- tsuena, hala ere, Azpeitian jokatu zen, Lore Jokoe- tan, 1893an. Badakigu udaletxeko balkoitik kantatu zutela, arratsaldeko lau eta erdietan hasi zirela. Hiruk hartu zuten parte, Joxe Bernardo Otaño, Uda- regi eta Pello Errotak, bost mila entzuleren aurrean eta hiru gizon epaile –apunta izenak–: Resurrección María Azkue, Domingo Agirre eta Felipe Arrese. Eta honelako hitz esanguratsuak idazten ditu Antonio Zavalak: “Inon diren gai guztiak arakatu eta eztabai- datu zituzten, eta oso zaila bata bestea mendera- tzen, baina jendea, diotenez, Pello Errotaren alde oihuka hasi omen zen. Juezak elkarrengana bildu ondoren, aho batez, Pellori eman zitoten saria, ehun libera urrezko. Jaialdi ederra ospatu ondoren, guz- tiak gustura etxera. Baina jaialdi hark ekarri zituen ondorio xebreak”. Badakizue Udarregi eta Pello Errotaren arteko sesioak piztu zirela eta abar.

Beraz, pareka ditzagun desafioak eta sariketak. Apunteak hartzen ari zaretenak bi sarerako taula egin ezazue, eta hartu goitik behera, batetik xedea, zein helburu zuten, bestetik formatua, jardun- a epaitzeko irizpideak eta epaileak, eta gero jarri- ko ditugu, batetik, desafioak, sariketak eta gero etorriko dira gainerakoak.

Alegia, xedea. Zer xedea zuten desafioek? Ondo pasatzea. Eta sariketek? Euskara gordetzea eta indartzea. Aldatu egin da.

Formatua. Zernolako aldaketak, zernolako bereizketak, zernolako zatiketak gertatzen diren... Orain hasiko da ehun eta bost urte iraun duen zatiketa luzea. Formatua, bertsolariak berak, desfioetan ez zegoen gai emailerik, gai jartzailerik, eta ez inor; beraiek hasi, beraiek bukatu, beraiek segi, beraiek gaia aldatu, beraiek esan beharreko guztiak egin. Sariketetan, ordea, jende ikasiak eratzten ditu sariketak, eta gai jartzaile bat behar dute, bederatzi baitira parte hartzen, edo hiru, eta norbaitek banatu behar ditu gaiak.

Hala ere, neretzat, nere ikuspuntutik, aldaketarik handiena, bereizketarik handiena, hurrengo osagaien dator: jardunean. Desfioetan jarduna da beti bertsolarien artekoa. Sariketa datorrenean, jarduna aldatu egiten da; bertsolariak hasten dira ez beraien artean, baizik eta jendeari begira. Gogoan izan lehen jarri dugun gaia: "Baldin elkartzeko bagera euskaldunak izango ditugu oraindik zorientasunak". Desfioetan horrelako gairik ez da buruan sartzen, sariketan bai. Beraiek ez dira elkarren kontra ari, ez dira elkarrekin ari mokoka, ez dira elkarrekin ari desfioan, ez, ari dira jendeari begira gauzak esaten.

Epaitzeko irizpideak. Desfioetan, bertso saioak berak eta bere emaitzak erakusten du zein den garaile. Nabarmenago, zeinek uzten duen zein hitzik gabe, arazoietan zein den gehien, begi bistakoa da zeinek irabazi duen, edo batek atzera egiten duelako edo inor ez da gailentzen eta enpate eman behar dute, zein baino zein egoskorrago ari direlako jo ta su. Desfioetan ez dira forma eta mamia bereizten, edo nahi bada, forma ezinbestekoa da mamiaren zerbitzuan, eta mamiaren zerbitzuan dago. Kontua da batzuk besteak mendea hartzea arau batzuen baitan jokatuz. Aldeak alde eta arima apartuta, ahari jokoan bezala. Talkek arauen arabekoak izan beharko dute, eta saio amaieran agerian egoten da zein den irabazlea, edo batek amoreka eman duelako edo jokoan bat gehiago izan delako. Sariketetan, ordea, bestelako irizpidea erabiliko da: zeinek hobeto egin bertsotan, zeinek egokiago erabili euskara. Eta hori juzgatzeko, jakina, gai horietan aditua izango den norbait aukeratuko du sariketaren antolatzaileak. Eta entzuleek zertxobait galduta ikusiko dute orain beren burua, zertxobait baino gehiago ere bai zenbaitetan.

Bosgarren osagaia: epaileak. Desfioan, epaileak bertsolariek aukeratzeko dituzte; sariketetan, ordea, antolatzaileak. Eta merezi du alderatzea desfioetako epaileak eta sariketetakoak. Kontuan izan Billabonako desfioan epaile daudela Fernando Amezketa eta Aizarnazabaleko sakristaua. Eta Iztuetak esaten du, idazten du bere kronika ematen duenean, letra bakarra ere ezagutzen ez zutenak, ez Fernando Amezketa ez eta Aizarnazabaleko sakristauak. Hartu horiek batetik eta har ditzagun orain bestetik lehen aipatu ditugun sariketetako epaimahaioak: Arturo Campion, Resurrección María Azkue, Domingo Agirre. Gogora dezagun lau kidez osatuta jaio zela Euskaltzaindia 1918an; lau kide horietatik bi, Arturo Campión eta Resurrección María Azkue. Alde ederra dago Fernando

Amezketa eta Aizarnazabaleko sakristaua, letra bat bera ere ezagutzen ez dutenak, eta bestetik Euskaltzaindiaren sorreran egongo diren lau kideetatik bi epaimahaio izanek sariketetan. Eta hurrengo urtean, hau da, 1919an osatuko da Euskaltzaindia eta hamabi kide izango dira, eta Domingo Agirre hartzen dute horietako bat. Baina orain datoz galderak. Bai euskarari buruz asko jakingo zuten, euskaraz ere bai, Azkue eta Agirrek, baina Campionek? Horixe ez omen zuten bertsolariek ulertzen: Campionek ulertu ote zituen. Eta Azkue eta Agirrek zein inzipideren arabera epaitzen ote zituzten bertsoak? Esaterako, gogoan izan zer idatziko duen Agirrek gero Gara eleberrian. Bi bertsoari buruz hitz hauek azaltzen direlako, honela dio Agirrek. Azaltzen dira bi bertso, eta bertso horietan hitz hauek: paratu, pulamentuz, pasatu eta portatu. Eta beste batean: inportantzia, sustantzia, poltsia (poltsa) eta alegantzia. Zortzi, eta horietakoak, uste dut, ez dakit zortziak dauden baina gaurko hiztegi batuan? daude denak. Eta hona zer idazten duen Agirrek Gara eleberrian: "Ez zidan neri batera alegantziarik egin aien aietan euskereak zuen goniak, eta aien aietan bakarrik balitz".

Sariketaren amaiera. Hona hemen berriro ere Zavalaren hitzak: "Estos concursos se prodigaron en aquellos años. Pero a principios del siglo se puso de moda el puritanismo del lenguaje. El vascuence hablado estaba corrompido, había que purificarlo. Vino en consecuencia el desprecio al bertsolari. Éste, impertérrito, siguió cantando en las plazas de aldea y en las tabernas y sidrerías. Pero ya no hubo concursos". Balantzea: bai, sariketak bukatu dira, baina eskerrak berriro ere, herriari eta bertsolariari; hauek bereari eutsiko baitiote temati eta egoskor, iritziak iritzi eta aurreiritziak aurreiritzi. Baina egingo dago lehen bereizketa, lehen zatiketa: batetik bertsoak zer dioten eta bestetik nola dioten. Egingo dago bereizketa, eta kaltea ere bai. Bukatu da lehendabiziko aldia, 1876tik 1900era.

Bigarren aldia: 1918-1936. Ahozko literatura eta Bertsolari Egunak. Bi izen: Manuel Lekuona eta Aitzol.

Izan ere, marka da gero!, bertsolaritza hartu euskara salbatzeko eta goniak jota egon bertsolarien euskara: Domingo Agirrearen hitzak. Baina eskerrak bertsoak baduen nolaren alderdi horretan beste alderdi bat, literatura. Ikusten eta baloratzen jakin behar, noski. Eta hortxe dago Manuel Lekuonaren meritua. Ildo horretatik etorriko da bere lana: *La métrica vasca, La poesía popular vasca, Literatura oral euskérica*, denak gerra aurretik. Berak itzuliko dio bertsolaritzari prestigioa eta behin prestigioa bereskuratu gero, hortxe dugu bertsolaritza berriro ere euskara eta euskal kulturari eusteko baliagarri. Are gehiago, Euskal Pizkundeari eragiteko baliabide. Eta poesia kultuak zeregin horretan huts egin zuenez, Manuel Lekuonak hitz erdi bat esan Aitzoli eta Aitzolek lehen Euskal Jaiak, Euskeraren Egunak eta Olerti Egunak bezala, orain Bertsolari Egunak eratu. 1935eko San Sebastian egunez lehenengoa, Basari txapeldun izendatuko duena,

eta urtebete geroago bigarrena, Txirrita txapeldun izendatuko duena. Baina berehala etorriko zen gerra, eta gerra oste luzea. Dena den, azpimarra ditzagun hiru puntu. Bat, egitasmoa handitu egin da: lehenago zen euskara gordetzea, orain euskal berpizkundera da. Bi, zehaztu edo egiten da bertsoa puntuatzeko modua: oso txarrari zero puntu, txar samarrari bost puntu, on samarrari hamar, onari hamabost eta on-onari hogeit. Ikusten denez, orduan inork ez zuen sei eta erdiko bat jartzen. Hiru, areagotu egingo da herriaren eta epaileen arteko bereizketa. Hau puntu oso inportantea da. Orain arte, hantxe zeuden Azkue, Domingo Agirre, Arturo Campión eta abar. Baina, nahiz eta gutxi ententitu bertsoz, haien lana erraza zen, jende hark esaten duena egin. Azken batean, etena sortu da, baina bertsolariak beraien ere oraindik jarduten dute pixka bat desafioetan bezala. Baina 1935ean ez, han epaimahaia aparte dago. Hor ematen da lehenbiziko zatiketa, lehenbiziko bereizketa. Modernitatea sartzen ari zaigu pixkanaka-pixkanaka, gauzak bereizten ari da. Bai, ez dezagun perspektiba galdu, berriro ere gailurrean dago bertsolariak baina zatiketa –edukia/ forma, herria/ epaileak– barne-muinetan duela. Eta bertsolaria eskizofreniko bihurtzeko zorian. Ez ahaztu zer bertsoa kantatu zuen Txirritak 1935eko saioan: “Euskera ia ahaztu zait eta erderarikan jakin ez, maisu batekin eskolan laster hasi beharko latinez”. Gero urteak pasako dira eta hemen hizketarako dago nahi duzuen guttia. Zepaik eta zerak... esaten omen zuten: “Orain sariketara joan beharko gaituk eta kontuz ibili beharko gaituk, hemen inportanteena duk Gemikako Arbolari kantatzea...”. Erabat txipa aldatuta joaten ziren sariketara.

Hirugarren aldia: 1956-1982. Izenak: Euskaltzaindia, Bertsolari Txapelketak, Lekuonatarak, Antonio Zavalak.

Luzea izan zen gerra ostea baina pixkana-pixkana berriro ere sua pizten hasiko dira esku langileak. Hala, 1956an Arantzazun egingo du Euskaltzaindiak gerra ondoko jendaurreko lehen batzarea. Bertan plazaratuko du Antonio Zavalak bere egitasmo handia: Bertso berri bila Euskal Herrian zehar: Hitzaldi hartan, besteak beste, Karmelo Etxegarai astindu zuen Zavalak bertsoak gutxiesteagatik, arrazoia ere eman zuen Etxegaraiak: “por su carácter irremediabilmente prosaico”. Baina hona hemen nola mintzatu zen Zavalak. Nik pixka bat hor lehen Joxerrak esan du Zavalak ez duela teorizatu, baina nik uste dut Zavalak bai teorizatu duela, markoa garbi daukala, gero gertatzen da bertsoak dauden-daudenean jasotzen dituela eta ez duela komentariorik egiten. Baina hor marko teorikoa dago. Zavalaren hitzak: “El bertsolarismo es para todos nosotros un mundo nuevo en el que no valen los criterios preconcebidos y viejos y un talento como el de Echegaray hubiera podido deshacerse de éstos, porque el pueblo no trató nunca de hacer poesía, y es una injusticia juzgarle por lo que no fue su intención”. Zavalak 40 urte geroago kontatzen du nola hitzaldiaren bukaeran Manuel Lekuona hurbildu zitzaion eta esan zion, hain berea zuen goxotasunaz: “Poesi kontu hortan urrutiegi

joan zera, poesi mota asko daude-ta”. Eta Zavalak aitortu egiten du urrutiegi joan izana, baina gauzak beren lekuan utzi nahi ditu. Hona tolosarraren hitzak: “Quede como justo medio el que al bertsolarismo no hay que juzgarlo con criterios extraños, sino por lo que los bertsolaris y el pueblo en general han buscado y pretendido por medio de él”. Gure erara esanda, alegia: oso garrantzizkoa da bertsolariak, edozer errealtate bezala, marko egokian eta ikuspegi egokiaz aztertzea. Eta literatura- ren ikuspegia, behar bezala erabiliz, egokia izan daiteke eta emaitza onak eman ditu; esate baterako, ikuspegi horretatik jarraitu zuen lanean Manuel Lekuonak, eta osabaren ildoan jarraiki lan bikaina egin du Joan Mari Lekuona ilobak, Joxerrak esan duen bezala. Joan Marien emaitza da hain zuzen, *Ahozko euskal literatura*, 1982an argitaratutakoa, eta hortxe dago esaterako aurrerakin gisa, 7. kapitulu- an, *Jendaurreko bertsolariak* izenekoan, bat- bateko jardunaren teknika izeneko puntua, eta puntu horretan bi gai: teknika erretorikoa eta teknika poetikoa. Etorriko da horien garapena ere, baina marko berrian. Eta urte horretan bertan, 1982ko abenduaren 19an jokatu- ko da, hain zuzen, Euskaltzaindiak antolatutako azken Bertsolari Txapelketa. Baina 1956ko Euskaltzaindiaren Batzarreak ekarri gaitu honaino. Handik bi urtera hasiko zen Euskaltzaindia Bertsolari Txapelketak antolatzen: 1958an eta 59an Bizkaiko Lehen Txapelketak eta 1960an Bertsolari Txapelketa Nagusia. Urte horretako abenduaren 18an jokatu- ko da finala Donostian. Aldaketen artean, bat funtsezkoa aipatzen du Antonio Zavalak: azken Txapelketa horretan, 1960an, bost bat magnetofoi bazeuden agertokiaren sai- hetsen eta saioaldi guztian bertsolariak kantu lanean eta tresna berri horien haria jira eta jira, eta magnetofoi-ekin batera irratia. Gero etorriko dira banan-banan gainerako Txapelketak, 1965ekoa, 1967koa, eta etenaldi baten ondoren, 1979koa eta 80koa eta, azkenik, 1982koa, esan bezala, abendu- duaren 19an. Hamabi egun geroago, jaioko da EIB.

Laugarren aldia: 1985-1998. Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteak, EIB, Hitzetik hortzera.

Nahiz eta gertuegi eduki laugarren aldi hau, bai azpimarra ditzakegula bi errealtate: batetik, EIBk eta EIBko bertso programak, *Hitzetik hortzerak*, hasieran izandako eragina; eta horrekin batera, beste errealtate bat, azpimarratzekoa, aldi hone- tan egiten da handiena jardunaren bereizketa. Ale- gia, gogoratzen, desafioetan bertsolariak elkarrekin aritze hura eta sariketetan bertsolariak elkarrekin bai baina lagun asko-ta aitzakia hartuta jende- ari begira aritzekoa. Andonik irabazi zuen lehendabi- ziko txapela jokatu zen Bertsolari Txapelketa hartan izan ziren bi bertsolari –ez dut izenik emango–, bi bertsolari-ek sailkapen kanporaketa osoan ez zuten parean jotzen, eta jende-ari begira ari zirenean, serio-serio, aritzen zirenak; buelta erdia ematen zutenean, mekaguenka aritu zirela; finalera pasa ziren biak. Alegia, hor dago bereizketa, bien arteko jarduna ez da bien arteko jarduna, laguna da aitzakia, orduan, laguna hartu eta elkarrekin jardun ordez, kanpora begira.

Bosgarren aldia: 1999tik aurrera. Modernitatea gainditu nahian.

Urte horretan, 1999an, plazaratzen du Joxerra Gartzia doktorego tesia: *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa* izenekoa. Urte horretan bertan, azaroaren 17an, honoris causa doctore izendatu zuen Deustuko Unibertsitateak Antonio Zavala. Eta hantxe, Unibertsitateko Paraninfoan egindako ospakizun berezian atera zuen Antonio Zavalak aspaldiko arantza. Hona hemen bere hitzak: “(zerbait falta) por boca del pueblo materiales literarios se creó para éstos, el término de folklore, o saber del pueblo o literatura oral o popular. Pero se trataba de una etiqueta un tanto injusta y taimada porque llevaba dentro un juicio de valor que marcaba diferencias y categorías. Lo uno era lo culto, lo docto, lo letrado, lo noble. Lo otro, lo inculto, lo indocto, lo iletrado, lo plebeyo. Había un plano superior y un plano inferior. No solo en Oriente existen castas. Y en esta trampa hemos caído todos o casi todos. Resulta así que durante años hemos hablado y escrito admitiendo ingenuamente tal distinción. Eso es algo de lo que yo al menos me siento ahora avergonzado porque cedíamos sin más un terreno del que no debíamos retirarnos, hasta que al cabo de muchas idas y venidas, de muchas vacilaciones y sentimientos de incorformismo, oí de labios de un amigo que no había dos literaturas, una culta y otra popular; sino sólo literatura, pero esta dualidad al ser irreflexivamente aceptada por todos, ha sido una moneda falsa que todos admitían como buena. Su fraude radica en que concede a los del piso de arriba el derecho de subestimar a los del piso de abajo, con lo que queda sin más desmascarado quién es el que ha acuñado la tal moneda”. Horra hor Antonio Zavala berriro ere, modernitatearen zauria itxi nahian. Oraingo honetan, ordea, literaturaren arloan.

Baina jarrai dezagun 1999ko azaroan. Orain dela bi urteko kontuak dira. Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketa jokatzeko ari da. Amaitu da herri edo bertsolarien arteko jarduna, eta kanporatuak izan diren bertsolarien hizketa: “Baina, baina, nola liteke kanpoan geratzea? Ia-ia saio guztietan hitzik gabe utzi dizkiagu-ta”. Desafioetako pentsamoldea oraindik. “Nola liteke kanporaketatik kanpora uztea. Bertso saio guztietan hitzik gabe utzi dizkiagu-ta”. Hor dago zatiketa. Eta talde bereko supleentearen iruzkina: “Bai, nik zuen baten eta horrelakoak entzun ditudanean, esan zioat nire buruari: akabo”. Horra hor, aurrez aurre, oraindik ere bizi-bizirik dauden bi paradigma: modernitateak jo gabekoa eta modernitateak jotakoa. Baina oraindik garaiz gabiltza.

Eta nik behintzat hortxe kokatzen dut Joxerra Gartzia doktorego tesia: *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak*. Doktorego tesia horixe da, izenburuak dioena: bertsolaritza aztertze-ko eta ulertzeko marko teorikoa, eta gainera aplikazio didaktiko bat proposatzen duena. Eta erantsi dezadan: marko teoriko berria, ikuspegi berria, paradigma berria. Modernitateak irekitako zauria

ixteko lehen urratsa. Bertsoaren forma eta edukia- ren arteko bikoiztasuna gainditzera datorrena. Eta lehen urrats guztiak bezala, ausarta da eta ondorengo urratsen zain dago. Izan ere, nire ustez behintzat, hemen aztertutako bertsogintzaren bost alderdi horietako –hau da, xedea, formatua, jarduna, epaitzeko irizpideak eta epaileak–, bost alderdi horietako bat hartzen du batik bat: jarduna. Baina jardun zatitua, bereizketaren ondorengo jarduna; bertsolariek entzuleari begira egiten dutena, ez bertsolariek beren artean egiten dutena. Joxerraren azterketa-gaia sariketarako jarduna da, eta ez desafioetarako. Horregatik gehiago aipatzen du komunikazioa bertsolari eta jendearen artekoa, eta gutxiago bertsolariak elkarren artekoa. Hala ere, ni gehiago kezkatzen nau aplikazio didaktikoak. Izan ere, arrazoi bete-betea du Joxerak diotenean bertsolaritzak, ahozkotasanak oro har; zer eskaini eta erakutsi handia duela euskararen egokitasuna hobetzeari begira, baina hain zuzen, askoz ere aberatsagoa da bertsolarien arteko jardunari dagokiona, nire ustez behintzat, batak bestearekin egiten duen jarduna askoz ere aberatsagoa da, bertsolariak entzulearekiko egiten duena baino, nire ikuspegitik, gero aplikazio didaktikoa egiteko; benetan, momentu honetan zer baiten behar baino baldin bageaude gizarte honetan horixe baita. Noski honek ez dio kentzen ezer besteari. Horregatik, lehenengo jardun hori aztertze-ko, hau da, bertsolarien arteko jardun hori aztertze-ko markoa gogoan nuela bota nion Joxerrari hemen parte hartzea eskatu zidanean, nire saio honen izenburua: *Bertsoa ikuspegi pragmatiko-diskurtsibotik*. Ikuspegi honetatik hobeto aztertuko dugulako bertsolarien arteko jarduna, eta niri behintzat horixe iruditzen zait egokiena. Ikusten duzue, ikuspegia planteatzeraz ere ez naiz iritsi, baina alde aurretik argitu beharrek zeuden zenbait gauza, eta horretan niri behintzat. Lagundu dit gaurko saiotxo hau prestatu beharrik. Esaterako, gaur izen ponpoxoagoa jarriko nioke, nahiz eta ponpoxo horrek baduen pedante izateko arriskua. Izan ere, egokiagoa iruditu zait interakzionismo sozio-diskurtsiboaz hitz egitea. Hala, gainera, bertsogintzaren bost osagaiak batera hartuko genituzke. Baina gero, gerokoak. Ez dakit ezer argitzen lagundu dizuedan. Hala balitz poz bete izango litzateke nerea. Besterik ez. Eskerrik asko, eta barkatu Jon.

Moderatzailea

Hemen, orain arte, juxtu mahai honetan bertsolari ez garenok hitz egin dugula, baina hori behintzat irakatsi digula, kutsatu zaigula, orduarekiko errespetua bertsolariengandik. Ez dakit. Nahi baldin baduzue egin genezake bost minutuko etena komuneko kontuak egiteko, eta gero, nola Jonenak eta Andonirenak laburragoak diren, horrekin ekingo genioke debateari edo eztabaidari. Iruditzen zaizue?

Hasi egingo gara orduan? Lehendabizi Jon Sarasuak bere txostentxoaren berri emango digu. Gaia osoa zabala da, *Bertsolaritza Informazioaren Gizarte an. Ezaugarriak, arriskuak, aukerak eta gainerakoak*.

Jon Sarasua

Nik gutxi gorabehera esango dudana 10 bat minutuan, 15 minutuan da, tesi nagusia da... bertsolaritza bultzatzen ari den mugimenduak –nik uste dut mugimendu hitza orain arte gutxi erabili dugula baina erabili litekeela–, beharbada Bertsozale Elkartearen gorpuzten da mugimendu hori, baina Bertsozale Elkartearen, Bertsolari... hor badela mugimendu bat, hitz horrek gizartean hartu dituen adierekin bat datorrena... Eta bertsolaritzaren mugimendu horrek izan dituela intuizio gidari batzuk. Intuizio gidariak zertarako? Ba, bertsolaritzaren senari eusteko eta aldi berean gaur egungo kulturbideetan bizi ahal izateko edo, bertsolaritzaren sen hori gaur egungo kulturbideetan garatzeko. Hortik joango da pixkat gogoeta. Ez da gauza berria eta egin berri dugun liburuan aterako den gogoeta bat da.

Batetik, esan izan dugu beste batzuetan ere bertsolaritzak badituela zenbait ezaugarri iradokitzaile, gaur egungo kulturbide nagusiekin guztiz bat ez datozenak. Bat da serieko erreproduktzioerik eza. Gaur egun kultur kontsumoa ia erabat serieko erreproduktzioetan oinarritzen delako: bai diskoa dela, bai liburua dela, beti da serie erreproduktzioen bat. Baina bai antzerki, musika emanaldi... eta guztiok daukate erreproduktzioen bat oinarrian: beste noizbait ekoiztutako produkturen bat zeratzen dute. Bertsolaritza, berriz, da serieko erreproduktzioetan oinarritzen ez den kulturbide gutxiatiko bat. Eta horretan datza, nik uste, bere ekarpena eta baita ere bere mugak.

Bestetik, bertsolaritzan garrantzi berezia dauka hartzailerekin harremanak: feedback eta abar deitzen dena deitzen dena komunikazioan. Beste guztietan ere garrantzitsua da, baina bereziki bertsolaritzan. Bertsolaritza gertatzen delako une, gune edo une-gune –zergatik ez dugu izen hori guretzat hartzen– berezi bat. Une-gunearen errepikaezintasuna da bertsolaritzaren ezaugarria, eta horrek egiten du hartzailerekin harremana ezinbestekoa izatea sorkuntzarean haria bera eramateko.

Bestetik, bertsolaritzaren ezaugarriak: zuzenekoasuna, kalekoasuna eta taldekoasuna. Kultura gero eta gehiago diferentia etxean bakarka kontsumitzen dena izanik, bertsolaritzaren, bertso gintzaren zera tipiko hauentzat oraindik ere jendea kalera eta taldera ateratzen du kultur ekintza batera.

Eta bestetik, bertsolaritzaren publikoak oraindik ere, nolabait zeharkatzen du neurri batean euskararen komunitatearen heterogeneotasuna. Gaur egungo kulturbide askok gizartea zatikatu egiten duten bitartean publiko eta gustu jakinetan.

Eta azkenik, bertsolaritzak daukan ezaugarri interesgarrietako bat da eskuragarritasuna. Hau da, bertsolariak kaleko pertsona arrunta dela, eta bai ekonomikoki eta bai sozialki oso eskuragarria.

Beste gogoeta bat da: zer kantatzen du bertsolariak? Pellok aipatu ditu gaiak. Eta nik uste kanpo-

ko, nazioarteko zerak egiten digun galderetako bat dela: gaur egun, euskal gizarte moderno-postmodernoko konplexu honetara iristeko, publiko berriaren gana iristeko, bertsolariak zer kantatzen duen. Nik uste dut erantzuna betikoa dela: gizarte bizitzako alderdi askori, ia orori, buruz kantatzen duela, eta bereziki saiatzen dela, gainera, gizarte bizitzako edozein alderdi edo aspektu kantatzen.

Gero, badago beste gogoeta bat. Eta da bertsolaritza ez ote den holako komunikazio zirkuitu alternatibo bat, bere xumea eta apala... Zergatik esaten dut hau? Bertsolaritzak ematen diolako une honetan jasotzen dugun informazio zaparradari hausnarraldi berri bat. Hausnartu da hitz bat, azken aldiaren gogoeta egin bezala erabiltzen dena, baina nik hausnarraldia erabiltzen dut hitzaren lehen adieran, hau da, behiaren adieran, hausnartu da azkenean irentsitateko zerbaitek ere ahora ekarri –lehenengo irensten duela–, berriz ahora ekarri, orduan nahastu txistuarekin, eta bigarren aldiz irensten. Bertsolariak ere egiten du holako zerbaitek: nazioarteko, estatu mailako, herri mailako eta bere inguruko informazioa berriz ekartzen du urdailetik eta bertso hausnarraldi bat ematen dio, hausnarraldi original bat, nolabait esanda, originala forma aldetik, eta hori jaulkitzen du ekintza publiko batean. Nik uste dut zalantzan jar litekeela hausnarraldi horrek, jolas horrek gaur egun ia gainezka dugun informazio horri modu kolektiboan, modu ludiko batean egindako jolas horrek zer aportatzen dion benetan gaiari. Zalantzan jar liteke, beraz, bertsolariaren ekarpen intelektuala edo batzuek esan dezakete –zergatik ez?–: ekarpen intelektuala egin liteke hausnarraldi inprobisatu eta kolektibo batean? Hori eztabaidan jar liteke, baina ni ez nau hainbeste horrek kezkatzen. Igual, inportanteena da, bere ekarpena da mailak nahasten dituela. Lehen Pellok esan duena. Batetik nahasten du bi pertsonaren arteko elkarrizketa; baina elkarrizketan ari gara Andoni eta ni, jakinik zuentzat ari garela elkarrizketan, beraz bi zirkulu, nolabait, bi zirkulu elkar harrapatzen dute. Baina baita ere nahasten ditu nazioarteko mailako, nazio mailako, herri mailako informazioak bertsolariaren uneko sentipenekin, aldamenen duzunaren iritziekin, publikoaren erreakzioekin. Eta nik uste dut bertsolaritzak aportatzen duen gauzarik politena edo originalenak direla nahasketa horietatik gertatzen direla. Batbatean Afganistango gerra ateratzen dela bertso batekin, bertso batekin nahasia Andonik izan duen erreakzio batekin edo momentu horretan gulan gertatu den beste gauza batekin. Nik uste hor sortzen direla bertsolaritzaren ekarpen xumeak, maila nahasketa horretan.

Hori esanda, tesi nagusira. Galdera da: bertsolaritzak ezaugarri interesanteak baldin baditu, zertarako ditu? Nola jarraitu aurrera edo nola joan aurrera gaur egungo kulturbideetan. Nik uste dut bertsolaritzaren mugimenduak izan dituela intuizio gidari batzuk, ondoren esango ditudanak. Bat da norberaren balioak aintzatestea. Beharbada kanpotik zalantzan jarri izan dira zenbaitetan, baina bertsolaritzak egiten du autoafirmazio bat alde horretatik. Esaten du: begira, baditugu ezaugarri

batzuk, xumeak edo dena delakoak, baina guri balio digute, guri sortzaile bezala balio digute eta ematen du gure aurean dagon jende bati balio diotela. Beraz, daukaguna polita da, eta aurrera! Nik uste dut hori dela lehenbiziko jarrera bitala. Gero galdetu liteke ea ezaugarri hauek hain ibilikoak diruditen ezaugarri hauek —erproduktiozko eza, zuzenetasuna, kalekotasuna, xumetasuna, esku-ragarritasuna— ea bere horretan utzi behar diegun ezaugarri horiei edo... Pozik egotekoak diren bate-tik, bale, pozik egotekoa badira, baina joatekoak? Badira etorkizunera joatekoak? Eta hor bigarren intuizio gidaria da, uste dut, bertsolaritza mugimen-dua bizi egin behar dugula eta ez iraun. Bertsolari-tzan irautea ez zaigula interesatzen, baizik eta bizitzea interesatzen zaigula. Eta hor etortzen da beti gatazka: zenbateraino da posible gaur egungo batzuei gustukoa ez zaien eta inklusio nazkagari zaien mundu mediatiko honetan bizi beharra, eta beraz bertsolaritza horren eskakizunetara makurtu beharra, eta bertsolaritza dena edo “autentikotasuna” mantentzearen artean. Hau da galdera: zein da oreketa puntua, nortasuna mantentzearen eta dagoen horretara moldatzearen artean? Uste dut bertsolaritzaren mugimenduak emandako erantzuna dela oreka puntu bakarra jarrera sortzailea dela: sortzen, inbentatzen goazen neurrian ondo goaz, eta sortzeari uzten diogun neurrian, ariko gara edo kopiatzen edo tradizio hiluren bati eusten. Orduan, tentsio sortzaile horren aldeko apustua uste dut dagoela egina. Eta horrek dakarren hirugarren intuizio gidaria da arriskua hartzea, garatzearen arriskua. Adibidez, telebistan egotearen arriskua. Telebistan egoteak bertsolaritzaren prostituzio maila handi bat dakar, nik hala uste dut. Arrisku asko dakartza, eta arrisku horiek jada pairatzen ari gara Baina bertsolaritzaren mugimenduak erabaki du asumitzen dituela arrisku horiek. Eta juxtu, arriskuak dauden borroka eremu horretantxe jokatu nahiko lukeela. Hala ere, iruditzen zait egiten dugula, baina egin behar dugula bereziki adi egon behar dugula bidean ez dezagun gal muina behintzat. Eta nik uste dut muina dela xumetasuna, biluztasuna eta inprobisazioaren benetakotasuna. Xumetasuna, biluztasuna eta inprobisazioaren benetakotasuna galtzen ez dugun artean, uste dut arriskueta, apustuetan sar gaitezkeela.

Eta bukatzeko, luzea litzateke, baina uste dut garapen bat izan dugula, ausart jokatu duela bertsolaritzaren mugimenduak, bai Bertsolariek bai Elkarteak. Uste dut garapen honen lau gako behintzat izan litezkeela. Bat jarrera, autokonfiantzazko jarrera izan dela, kanpotik izan ditugula kritikak, bai barruan ere: izan behar genukeena, zenbateraino ari garen bertsolaritza desnaturaltzen, zenbateraino hipertrofiatzen ari ginen, mila kritika... Baina uste dut autokonfiantzazko jarrera bat izan dugula, nolabait, ia-ia inprobisatzailearen jarrera, ezta? Egiten ari ginenak guri balio zigun, gustura geunden eta uste dut konfiantzaz jokatu dugula arriskuen aurrean, kanpoko kritiken aurrean, eta bidea inbentatu edo sortu behar izanaren aurrean. Ez dugu eduki homologatzeko patroirik; beste batzuek beharbada bai, literaturak, ez dakit zer... guk ez dugu izan

homologatzeko patroirik... Ez dakit, beharbada horrek lagundu digu. Bigarren gakoa izan liteke belaunaldien transmisioan areta berezia jartzea, eta pixka bat hori Andonik aipatuko du. Baina hori oso kontzientea izan da bertsolaritzan. Ez dakit zenbateraino batzuetan gehiegi ere gazteak bultzatu behar horrekin gazteen miresmen gehiegizko bat ez ote dugun eduki. Baina uste dut merezi merezi izan duela, eta ez dut kontatuko gero Andonik kontatu duenik. Eta lau esan ditut baina hiru bakarrik ditut. Eta hirugarren gakoa, uste dut denak biltzen dituela, eta izan dela autoeraketa, edota zehazkiago Bertsozale Elkartearen sorrera, guzti hau gidatzeko tresna moduan. Bertsolari kolektiboa, eta bertsolari kolektiboa bainoa zabalago, bertsolaritzaren mugimendua trinkotzeko tresna bezala. Eta uste dut hori izan dela gakoa, eta joan gara 15-16 urteetan kultur proiektu bat marrazten eta kultur proiektu hori kolektiboki aurrera eramaten. Eta horretantxe utziko dut neure partea.

Moderatzailea

Eskerrik asko, Jon. Nabaritzen da erretiratuta dagoela hau bertsolaritza ofizialetik, nola zaintzen duen esandako denbora tartea...

Jon Sarasua

Zortziko txikian, hamarreko handian hauek kabitut dira.

Moderatzailea

Eta Jonek aurreratu duen bezala, beste alor asko ere bazeudekeen. Hemen Jonek aipatu dituen guztiak bazeuden, Jonek aipatu dituen guztiak baziren txostentxo bat egiteko adinakoak. Baina hala ere iruditu zaigu Kongresua orokorrean planteatuta dagoen bezala planteatuta, ba Andonik hemen esan zitzakeen gauzen artean onena izango zukeela edo gendukeela honako hau: Bertsolaritzaren transmisioa: eskola, transmisio bide, baina baita ere hedabide zahar eta berrietan.

Andoni Egaña

Ni ere soil jardungo naiz, hamar minutu. Nik ere kantatu diot Gernikako Arbolari, nik ere izan dut Zepaik zeukan kezka hura, ezta? 85-86ko txapelketan oraindik Gernikako Arbolari kantatzen zitzaion, eta gainera testua seguru hor dagoela liburuetan. Hala ere, gaur egungo gizartearen ezaugarrietako bat, zenbait kontutan behintzat, transmisioak sortzen dituen zailtasunak da. Ahozkotatzen bagozkio, bertsolaritzari, garai batean berez belaunaldiz belaunaldi eta berez transmititzen zena, gaur egun ez da berez transmititzen. Faktoreak asko izango dira, eta horretarako gu baino adituagoak izango dira faktore horiei buruz hitz egiteko. Baina ez etxean, ez kalean, ez tabernan, esate baterako, gaur egun ez da ahozkotatzen, edo ber-

tsolaritza zehazki, lehengo moduan transmititzeko erarik ere. Zergatik? Faktoreak asko dira, denok dakigu. Taberna batean ezin da bertsotan egin gaur; musika dago, eta topera dago, eta orain dela berrogeita hamar urte Zarauzko Azken Portu tabernan zer festa hobea bertsolari bat zeukan festa baino. Gure umeez, gure gaztetxoek, guk geuk ere apenas hori ezagutu izan dugun. Ni Gasteizen bizi nintzelarik, Gasteizko euskaldun berri bertsozaleen koadrilari “melé” koadrila deitzen zioten. Xerapio, Rikardo eta beste bi edo hiru, elkartu eta taberman hola egoten ginelako, errugbilariak melean bezala bertsotan egiteko, klaro, musika gainetik zegoen.

Beraz, faktore horietan sartu gabe, nik uste dut bai ahazkotasunaren gainbehera, bai bertsogintzaren transmisio zailtasunak, hortik letozkeela, gizar-tearen beraren aldaketatik. Ez dut gehiago segiko hortik, baina denok dakigu ikusentzunezkoek izan duten eragina, denok dakigu gaur egungo gizar-tearen martxa bizkor honek zenbait gauza galdu egiten dituela, eta galeren artean dago edo legoke guk dexente kuttuna dugun jarduera mota hori, bertsolaritza.

Beraz, ez baldin bada berez transmititzen, logikoa dena da ahalegin bat egitea transmisio bideak hobetzeko. Egia da, eta esanguratsua Uztapidek esaten zuena: “Poz bat badaukat nere barruan, gazteak badatozela”. Uztapidek esaten zuen bezala, gero Joxe Lizasok esan du, edo Amurizak edo Sarasuak edo ni neuk esan dezaket orain. Ez dakit, izan liteke obsesioa edo planta. Obsesioa igual bada, eta Jonen ere esan du, igual gehiegi jo dugula, baina planta ez. Ez dakit zergatik baina sentitzen dugu transmititu behar hori eta geroeneko belaunaldiek guri hainbeste poz eta hainbeste irteera eman digun jarduera hau egiten segi dezan nahi dugu. Klaro, guk etxean ezin dugu eragin, kalean ere ez; esango nuke esparru handiegia direla eragin bat izateko. Orduan, non eragingo dugu? Bada, eskolan eta hedabideetan. Klaro, konturatu-ko zarete ez dela batere erraza. Eskola bera ere, hezkuntza, mamotretu ikaragarria da, eta hedabideak zer esanik ez. Baina, hala ere, gure eragina, gure inzidentzia hor izan daiteke handiena. Eskolari dagokionez, oso argi berezi behar da, nik uste dut azken urteetan berezi dugula, baina badaezpada: gauza bat dela bertsoa eskolan, eta beste bat dela bertso eskola. Bat da irakaskuntza arautuan bertsoekin zer egin litekeen, eta bestea da bertsoetarako propio antolatutako talde batek zer egin dezakeen. Bertsoa eskolan ikuspegia, Joxerrak aipatu duen azken urteotako marko teoriko hori osatzen ari ginelarik, konturatu ginen aldatu beharra geneukala, nahiz ordura arte egin ziren gauzak eta ahaleginak onak izan, aldatu beharra zegoela bertsoa eskolan planteatzeko era ere. Ariketa mekaniko asko, izen asko –zortziko handia, zortziko txikia, zazpi, sei, hamar; zortzi... iluna, egingo duguna... hutsuneak bete...

Beharrezkoa zen bere garaian, eta ahaleginak eginda, baina horrek ez zuen bere osotasunean betetzen guk ahazkotasunari ematen genion potentzialitatea eskolari buruz. Guk uste dugu bertsolari-

tza badela ejemplu bat, apal, baina bertsolaritzaren estrategia kopiaturaz hobetu litekeela neska-mutikoen komunikazio gaitasuna denean. Igual gehiegi esatea da, baina horretan ari gara. Esperientzia pilotu batzuk jarri ditugu martxan eta ikusiko dugu zer emaitza ematen duten. Kalkulua erreza zen: bertsolaria beti saiatzen da aurrean dagoenarekin komunikatzen. Zergatik? Aurrean dagoena aurrean dagoelako. Ez dut probokatzailek ezagutzen urtean ehun aldiz probokatuko duenik. Bestela, oso probokatzaile xalaua izango da, beraz ez da probokatzailea. Zuzenean ari garelarik eta aurrean jendea baldin badago, beti saiatuko zara ez pasota izaten, ez irreberentea izaten, ez egun txarra izaten; beti saiatuko zara ahal duzun ondoena egiten. Beraz, bertsolariak zuzeneko komunikazioaren baldintza hori oso berea du, egia da. Horrek esan nahi du beti komunikatu nahi duela. Beti komunikatu nahi badu eta berrogei segunduero, gutxi gorabehera berrogei segundu dira bertsoak irauten duena, berrogei segunduero zerbait komunikatu nahi badu, komunikazio estrategia askoren jabea izan beharra dauka. Bueno, bada, gure ideia izan zen: analizatu ditzagun estrategia horiek, irakatsi diezaizkiegun umeei, eta haiek antzekotasunez, analogiaz, ikasiko dute antzeko estrategiak erabiltzen, nahiz ez izan bertsotan, nahiz izan hitzaldi bat egiteko orduan, nahiz izan taldean beste bat konbentzitzeko orduan, edo nahiz izan azterketa bat planteatzeko orduan. Eta horretan dihardugu. Hori da, gutxi gorabehera, bertsoa eskolan nola ikusten dugun gaur egun.

Bestea da bertso eskolena. Bertso eskolena aspaldidanik, Bertsozale Elkartearen ikuspegitik gehien mimatu beharreko terrenoa da. Gehien mimatu beharrekoa, transmisioa horrek bakarrik ziurtatuko digulako. Bertso Eskolek jada hogeituroko historia daukate: Algortakoa, Almengoia Arretxabaletakoa, Zumaiakoa... Horiek hogeituroko historia daukate. Egia da sortu zirela intuitiboki, pausoak eman zituztela antolakuntza handiegirik gabe, koordinazio handirik gabe, etab. Baina bertso eskola horiek erakutsi digute zerbaitetarako balio izan dutela. Zein da gure helburua? Bada, gure helburua garbi dago: intuizio soiletik hain ondo hartzen dena, pixka bat gehiago antolatu, pixka bat gehiago koordinatu, eta ea fruitu onak ematen segitzen duten. Bitarte horretan inportantea izan da, gure ustez, jendearen mentalitate aldaketa ere. Gaur egun, orain dela hamabost urte ez bezala, bertso eskolara joaten direnek ez dute izan nahi bertsolari, denek ez dute puntako bertsolari izan nahi. Jada jendea konsziente da bertso eskola dela toki bat bertsoaz gozatzeko eta bertso eskolan sortzen direla puntako bertsolariak, noizean behin egin ez gozaten duten bertsolariak, bertsozaleak oro har; epaileak, gai jartzaileak, kritikariak. Ez dakit, gaur egungo txapelketa nagusia hartzen baduzue, agente denak seguru bertso eskoletatik paseak direla: bai bertsolari, bai epaile, bai kritikari, bai gai jartzaile... Horrek zerbait esan nahi du. Esan nahi du transmisioa berez ez dela egiten, baina pixka bat ahaleginduz gero eta gauzak ondo xamar egin ez gero, ziurtatu litekeela. Eskolei dagokionez hori: bai eskolak, bai bertso eskolak.

Erabilerari dagokienez, berriz, gogoratuko dut ni bertsotan hasi nintzenean, 81-82 urtean, udal liburutegik 62ko, 5eko eta 7ko txapelketako liburuak lapurtu nituela. Bertsotan hasi nahi nuen, bagajea hartu nahi, eta egia da, 82an hor zegoen Joan Mari Lekuonak urte hartan argitaratu zuen bere liburua, urte t' erdi lehenago Xabier Amurizak bere *Kirol nazionala* eta *Errima hiztegia*, baina hortik aparte ez zegoen nondik elikatu handirik. Loiola Irratiak, uste dut, astean behingo saio bat ematen zuela, baina ez zegoen gehiago. Ni ez naiz lapurra, bestela ez nituen lapurtuko liburuak. Hedabide horietan bertsolaritzak izan duen hedapena begibistakoa eta azkarra izan da. Gaur egun, denok dakigu nola dauden irrati, egunkari, telebista, aldizkari, weborri... eta gainontzekoak. Eta horretan, normalean erabilerarekin denok kritikoak izatera jotzen dugu, eta nik badakit denean hobetu litekeela. Elkartearen eskaeraz, Arantzazu Loidik bukatu berri du, edo orain hilabete batzuk bukatu zuen txosten bat, bertsogintza eta erabilerari buruzkoa, han askoz ere hobeto eta argiago esplikatuta daude horiek denak, baina ni kritikoegia ez nintzateke izango. Panorama orokorrari begiratuta, esango nuke gauzak dexente

ondo egiten direla, dexente gaizki egiten direla esan beharrean. Eta kontzientea naiz Jonek esan duenaz, erabileratik pasatzen den orok hauskor izateko arriskua dauka, eta bertsoak are gehiago, bere testuingurutik ateraz gero edozein eratan uler daiteke, baina pentsatzen dut orain dela hogeituroko panoramari begiratu, non Argian kronika soil bat izaten zen, gai hau izan dute eta gero honek beste gai hau eta gero binaka hau... Handik gaur egunean egunkari, aldizkari, telebistan inkluso, irratietan entzuten diren iritzi kritikoetara iristeko bide handia egin da. Gero, ados izango zara edo ez zara formatu batekin edo bestearekin, iritzi batekin edo bestearekin, baina oro har, nik uste dut ikuspegia baikor izateko modukoa dela. Hamaika minutu.

Moderatzailea

Bada, hemendik aurrerakoa izan daiteke edo zuek entzundako zerbait osatu nahia, hortik hasi, egindako zerbaiten kontra egin, esan ez den edo ukitu ez den alor edo alderdiren baten aipamena zuek egin edo hemengoren bati eraginaraztea...